

Batuz aldatu

Hizkuntza-politikan
eragiteko adostasun soziala

Consenso social para incidir
en las políticas lingüísticas



EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA

IZENBURUA:Batuz aldatu

TÍTULO: Batuz aldatu

AZPI-IZENBURUA: Hizkuntza-politiketan eragiteko adostasun soziala

SUBTÍTULO: Consenso social para incidir en las políticas lingüísticas

EGILEA:Euskalgintzaren Kontseilua

AUTOR: Euskalgintzaren Kontseilua

ARGITARATZE-DATA: 2021eko ekainaren 19a

FECHA DE PUBLICACIÓN: 19 de junio del 2021

EGUNERATZE-DATA: 2021eko uztailaren 22a

FECHA DE ACTUALIZACIÓN: 22 de julio del 2021

ATARIKOA

Jauziez ari gara azken hilabeteotan behin eta berriro. COVID-19ak mundu osoa astindu du, guztion zaurgarritasuna eta interdependentzia agerian utziz, eta hainbat eremutatik aldarrikatzen ari da etorkizunari begirako erronka berriak zehaztu behar direla, eta ondorioz, politikek norabidetze berriak behar izateaz gain, horietan eragiteko jauziak egin behar direla.

Pandemiak astindu aurretik ere, Euskalgintzaren Kontseiluak esana zuen euskalduntze prozesuak beste fase batera igaro beharra zuela, eta horretarako, hizkuntza-politikak berrikusi eta birpentsatu behar genituela. Bada, krisiak irakatsi digu bide hori inoiz baino beharrezkoagoa dugula. Hartara, geurean ere, jauzia egiteko garaia dela berresten dugu.

Lehenengo jauzia iazko abenduan egin zuen Euskalgintzaren Kontseiluak bere asmoak iragarri zituenean. Orduan, eremuz eremuko eragileen babesa lortuz, euskararen erabilera eroso bermatzeko baldintzak sortzeko hizkuntza-politikak bultzatzeko nahia agertu genuen. Are gehiago, etorkizunari begira hizkuntza-politiketan eragiteko adostasun berriak eraiki beharra ezinbestekotzat jo genuen, hizkuntzaren afera erantzukizun partekatua delako. Eta, adostasun horiek erdiesteko lehen proposamena jarri genuen mahai gainean.

Ondorengo jauzia hasierako proposamen horren zabalkundeari lotu zitzaion, eta zenbait hilabetez, Euskalgintzaren Kontseiluak etxe barruko zein kanpoko askotariko hamarnaka eragilerekin partekatu ditu adostasunak eraikitzeke asmoa ez ezik, horri lotutako proposamena ere. Gainera, harreman horiek guztiek eragileen ehun ekarpen inguru ekarri dute, eta beraz, hasieran mahai gaineratu genuen proposamena are osoagoa dela esan dezakegu.

Bagoaz orain hurrengo jauzia egitera. Hain zuzen ere, hizkuntza-politiketan eragiteko oinarrizko proposamen honekin bat egin dezaketen eragileei gonbidapena egitera. Finean, eragileak batu nahi ditugu asmo honetara, ahalik eta adostasun sozial zabalena izango duen proposamena aurkeztea baita gure asmoa.

PRÓLOGO

Estos últimos meses estamos hablando una y otra vez de saltos. El COVID-19 ha conmocionado a todo el mundo, poniendo de manifiesto la vulnerabilidad e interdependencia de todas las personas. Por ello, desde diferentes ámbitos se está reivindicando la necesidad de definir nuevos retos de cara al futuro y, en consecuencia, de que las políticas no sólo necesiten nuevas orientaciones, sino también den saltos.

Antes de que se produjera la pandemia, Euskalgintzaren Kontseilua ya había afirmado que el proceso de euskaldunización debía pasar a otra fase, y que para ello teníamos que revisar y repensar las políticas lingüísticas. Pues bien, la crisis nos ha enseñado que este camino es más necesario que nunca. Así, también en nuestro caso, reafirmamos que es hora de dar un salto.

Nuestro primer salto se produjo en diciembre del año pasado, cuando Euskalgintzaren Kontseilua anunció sus intenciones. En ese sentido, mostramos nuestro deseo de impulsar políticas lingüísticas para crear las condiciones para garantizar un uso cómodo del euskera, con el apoyo de agentes de diferentes ámbitos. Es más, consideramos imprescindible construir nuevos consensos para incidir en las políticas lingüísticas de cara al futuro, porque la cuestión lingüística es una responsabilidad compartida. Y, pusimos sobre la mesa una propuesta inicial para alcanzar esos consensos.

El siguiente salto vino con la difusión de esa propuesta inicial. Durante varios meses, Euskalgintzaren Kontseilua ha compartido con decenas de agentes diversos, tanto la intención de construir consensos, así como la propuesta base. Todos estos contactos han supuesto cerca de un centenar de aportaciones de los agentes, por lo que podemos decir que la propuesta que ponemos encima de la mesa es aún más completa.

Ahora toca dar un nuevo salto. En concreto, invitar a los agentes a sumarse a esta propuesta para incidir en las políticas lingüísticas. Al fin y al cabo, queremos aunar fuerzas, atraer a los agentes a este propósito, porque nuestra intención es presentar una propuesta que cuente con el mayor consenso social posible.

Eta, noski, honek guztiak ekarriko du etorkizun laburrean benetako jauzia eman ahal izatea. Eragileak proposamenaren inguruan batzeko asmoa dugu, baina batasun horretatik gure azken xedeari ekin nahi diogu, aldatzeari hain zuzen. Hizkuntza-eskubideen bermea ardatz izango duten politiketan eragiteko urrats bateratuak egin nahi ditugu; eta hori guztia eragileen adostasuna oinarri: batuz aldatu.

Y todo ello, para que en un futuro breve se dé un verdadero salto. Tenemos intención de reunir a los agentes en torno a la propuesta, pero desde esa unión queremos abordar nuestro objetivo final, que es el cambio. Queremos dar pasos conjuntos para incidir en políticas que tengan como eje la garantía de los derechos lingüísticos; y todo ello sobre la base del consenso de los agentes: sumar para cambiar.

KOKAPENA

Aurrera egiteko garaia da: denon hizkuntza-eskubideen alde, gizarte kohesioaren alde, euskararen alde. Euskal hiztunen eskubideek bermatu gabe jarraitzen baitute, hiztunen arteko desoreka eta desberdinkeria nabarmenarekin. Izan ere, euskal hiztunentzat nekeza da eguneroko jardun sozial oro euskaraz egin ahal izatea, erosotasunez eta bazterketarik gabe. Eta euskalduntzeko bidean direnek ere hamaika zailtasun izan ohi dute. Berme-neurririk gabe, zaurgarrienen kaltetan egiten baitu balantzak: hizkuntza-komunitatearen eskubideen galeran.

Egoera hori are nabarmenagoa izan da pandemian. Lehendik zetozen auziak gordindu besterik ez ditu egin, eta inoiz baino begi-bistarago geratu da euskarak eta hizkuntza eskubideek bizi duten impasse-a. Hizkuntza politikak berrikusi, indartu eta jauzi berri bat egiteko garaia da.

Azken hamarkadetan asko ikasi eta ikusi dugu hizkuntzaren garapenerako estrategiez, soziolinguistikaz eta hizkuntza-politikez. Aurrerapen garrantzitsuak gertatu dira horiei esker; eskumena duten eremuetan, batik bat. Baina jada ez da aski. Hala erakusten dute, esaterako, 2011 eta 2016ko inkesta soziolinguistikoaren eta Kale Erabilera neurketen emaitzek: Datuek erakusten dute indarrean dauden hizkuntza-politikek bide bat egin dutela, baina jauzi berriak egiteko hizkuntza-politikak eguneratu eta berri behar direla, adostutako helburuen lorpenerako eraginkor eginez.

Jauzi egin behar da horregatik. Gaur egungo hizkuntza-politiken langa gainditu behar dugu. Eta gizarte eragileok badugu zer esana eta egina. Gizarte osoa zeharkatzen duen auzia delako hizkuntzarena: harremanen oinarria da, eta eremu guztietan gertatzen dira modu bateko zein besteko hizkuntza praktikak.

Hori dela eta, gizarte-eragileok erantzukizunez jokatu behar dugu. Norbere esparru eta harreman sareetatik jardunez eta eraginez, denon eskubideak bermatzeko urratsak egin behar ditugu. Gizarte berdinzaleago eta kohesionatuagoa lortzeko giltzarria baita.

CONTEXTUALIZACIÓN

Es hora de avanzar: por los derechos lingüísticos de toda la ciudadanía, por la cohesión social, por el euskara. Los derechos lingüísticos de las personas vascohablantes continúan sin estar garantizados, y son notorios el desequilibrio y la diferencia entre los hablantes. De hecho, para los y las euskaldunes es costoso realizar cualquier actividad social diaria en euskara de manera cómoda y sin exclusiones. Las personas que están en proceso de euskaldunización también tienen muchas dificultades para usar la lengua. De esa manera, sin medidas de garantía, la balanza cae hacia las personas más vulnerables y en detrimento de los derechos de la comunidad lingüística vascohablante.

Esta situación ha sido aún más evidente en la pandemia. No ha hecho más que recrudecer los problemas que venían vislumbrándose, y ha quedado en total evidencia el impasse en el que se encuentran el euskara y los derechos lingüísticos. Es hora de revisar las políticas lingüísticas, fortalecerlas y dar un nuevo salto.

En las últimas décadas hemos aprendido mucho sobre estrategias de desarrollo de la lengua, sobre sociolingüística y sobre política lingüística. Ha habido avances considerables; sobre todo en las partes del territorio con mayores competencias. Pero ya no es suficiente. Así lo demuestran, por ejemplo, los resultados de la última Encuesta Sociolingüística y de Medición del Uso del Euskara de 2011 y 2016: los datos demuestran que las políticas lingüísticas vigentes han recorrido un camino, pero que para dar un nuevo salto se deben actualizar y renovar, haciéndolas efectivas para el logro de los objetivos acordados.

Por tanto, es necesario dar un salto. Es necesario superar la barrera de las políticas lingüísticas actuales. Y los agentes sociales tenemos mucho que aportar. Porque la cuestión de la lengua es una cuestión que atañe a toda la sociedad: es la base de las relaciones y, en todos los ámbitos existen prácticas lingüísticas de una manera u otra.

Por ello, los agentes sociales debemos actuar con responsabilidad. Actuando e incidiendo desde y hacia nuestros propios ámbitos y redes de relación, trabajan-

Dokumentu honek horretarako bultzada izan nahi du. Hurrengo bi hamarkadatan jauzi berriak emateko aukera dugu eta jauzi horiek eman ahal izateko hainbat proposamen jaso ditugu dokumentuan.

Adostu dezagun eragileok bide-orri berria: erantzukizunak partekatuz, konpromisoak hartuz, esatetik egitera pasatuz.

Eraginez. Adostasun sozialak ahalbidetuko baitu hizkuntza-politika berri eta eraginkorrago bat osatzea. Balia dezagun horretarako dokumentu hau. Izan dadila bide berri baterako bultzada.

do y actuando para que se den los pasos necesarios para la garantía de los derechos que nos asisten. Esa es la clave para avanzar hacia una sociedad más igualitaria y más cohesionada.

Este documento quiere ser un impulso para ello. Tenemos la oportunidad de dar nuevos saltos en las próximas dos décadas, y este documento recoge documento varias propuestas para poder dar dichos saltos.

Acordemos entre los agentes una nueva hoja de ruta: compartiendo responsabilidades, asumiendo compromisos, pasando de las palabras a los hechos. El consenso social posibilitará construir una política lingüística nueva y más eficiente. Aprovechemos este documento para ello. Que sea un impulso para un nuevo camino.

PRINTZIPIOAK

Dokumentuko sinatzaileok honako irakurketa amankomunetik abiatzen gara, eta geure egiten ditugu ondoren adierazitako printzipioak:

Bereizkeriari aurre egiteko eta elkarbizitzan sakontzeko, beharrezkoa da hizkuntza-eskubideak errespetatzea eta bermatzea.

Berdintasuna gizarte berri bat eraikitzeo parametroetako bat izango bada, bereizkeria alboratu eta berdintasuna bermatzeko politikak abian jarri beharko dira, bai eta egoera gutxituan dagoen euskal hizkuntza-komunitateari dagokionez ere.

Hizkuntza-politika beti egiten da, saihestezina da.

Kasu guztietan dago presente hizkuntza-politika, beti eta gai guztietan egiten da, aitortuta edo ez, agerian nahiz oharkabean. Hortaz, egungo hizkuntza-politikaren inguruko neurririk ez hartzea ere, egungo egoera mantentzearen aldeko hizkuntza-politika egitea da, baita gainerako politiketan euskaldunak aintzat hartzeko hizkuntza-irizpide egokiak ez hartzea ere. Horrekin batera, administrazio eta erakunde guztiek egiten dute hizkuntza-politika, alderdietatik sindikatuetaraino, hedabideek, kirol taldeek, era guztietako elkarteek... finean, gizartean eragina duen edozeinek, izan talde zein ez.

Hizkuntza-politika zeharkako politika publikoa da.

Euskararen normalizazio-prozesua zeharka landu beharrekoa da: industrian, lurralde-antolaketan, aisian... Politika guztietatik egiten da hizkuntza-politika, eta erabaki ia guztiek dute lotura hizkuntza-politikarekin, udaletatik administrazio orokorreraino.

Hizkuntza-politikak orekatua izan behar du.

Gizarteko sektore edo jardun jakin batean soilik euskararen normalizazioaren alde eginez gero, desorekatu egiten da prozesua, eta eraginkortasuna galduko du, partez edo guztiz. Ezinbestean, sektore eta sail guztietan eragin behar da, alor batean irabazitakoa muga (eta gal) ez dadin eta bestelakoetara ere heda dadin.

PRINCIPIOS

Los firmantes de este documento partimos de una lectura común y compartimos los siguientes principios:

Es necesario respetar y garantizar los derechos lingüísticos, para combatir la discriminación y profundizar en la convivencia.

Si consideramos que la igualdad es un parámetro para construir una nueva sociedad, hay que poner en marcha políticas que garanticen dicha igualdad y eviten la discriminación, también en lo correspondiente a la comunidad lingüística vasca en situación minorizada.

Siempre se hace política lingüística, es inevitable.

La política lingüística está presente en todos los casos, siempre y en todas las materias, sea reconocida o no, sea visible o pase inadvertida. Por tanto, el hecho de no tomar medidas supone también hacer un tipo de política lingüística para mantener la situación actual, así como el hecho de no tomar en cuenta criterios lingüísticos para tomar en consideración a las personas vascohablantes en otras políticas públicas. Además, todas las administraciones y entidades hacen política lingüística, desde los partidos políticos hasta los sindicatos, medios de comunicación, grupos deportivos, asociaciones de toda índole, cualquiera que tenga influencia en la sociedad, sea grupo o no.

La política lingüística es una política pública transversal.

El proceso de normalización del euskara es un proceso que debe tratarse de forma transversal: en la industria, en la ordenación del territorio, en el ocio... Desde todas las políticas se hace política lingüística y casi todas las decisiones tienen relación con la política lingüística, desde las administraciones locales o ayuntamientos hasta la administración general.

La política lingüística debe ser equilibrada.

Si se refuerza un único sector o actividad de la sociedad en la normalización del euskara, el proceso general se desequilibra y pierde eficacia, en parte o de manera

Normalizazio-prozesua soziala eta politikoa da.

Normalizazio-prozesuaren dimensio politikoa eta soziala estuki erlazionaturik daude. Hortaz, herri-ekimenak eta ekimen politikoak norabide berean egin behar dute bidea.

Normalizazio-prozesuak progresiboa izan behar du.

Hizkuntza-politikak kontuan hartu behar ditu lortu nahi duen helburua eta zein errealitatek abiatzen den. Horregatik, behar-beharrezkoa da eremu soziolinguistiko eta administratibo bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako prozesua irudikatzea.

Hizkuntza-politika Euskal Herriko hizkuntza aintzakotzat hartuta garatu behar da.

Euskararen biziberritze prozesua, Euskal Herriko ehundik gora hizkuntzen testuinguruan kokatu beharra dago, gizarte eleaniztun askotarikoan. Bertako hizkuntza guztiak balioan jarri eta hauen kudeaketa euskararen biziberritze prozesurako indargarria izan dadin, politika orokorrak garatu beharra dago.

Normalizazioa prozesu adostu gisa ulertzen dugu.

Zenbat eta adostasun gehiago izan, orduan eta prozesu azkarragoa izango da. Horregatik, hizkuntza-eskubideak bermatzeko adostasun sozialak eta politikoak eraiki behar dira. Hizkuntza baten normalizazio-prozesuan, eta justizia ardatz izango dituen gizarte baten eraikuntzan, uste dugu hizkuntza-eskubideen bermeak oinarritzkoa izan behar duela. Horregatik, hizkuntza-eskubideak adostasunerako oinarritzko orubetzat hartu beharko dira.

integral. Es necesario actuar en todos los sectores, para que lo obtenido en un sector o actividad no se limite a ese sector (y se pierda), y para que se expanda a otros.

El proceso de normalización es social y político.

Las dimensiones política y social del proceso de normalización están estrechamente relacionadas. Por tanto, la iniciativa popular y la iniciativa política deben ir en la misma dirección.

El proceso de normalización debe ser progresivo.

La política lingüística debe tener en cuenta el objetivo que persigue y de qué realidad parte. Por ello, es necesario imaginar un proceso adaptado a las características de cada ámbito sociolingüístico y administrativo.

La política lingüística debe desarrollarse teniendo en cuenta la diversidad lingüística del País Vasco.

El proceso de revitalización del euskara debe contextualizarse en el centenar de lenguas o más que hay en Euskal Herria, en una sociedad plurilingüe diversa. Se deben poner en valor esas lenguas y hay que desarrollar políticas generales para que su gestión sea un refuerzo en el proceso de revitalización del euskara.

Entendemos la normalización como un proceso consensuado.

Cuanto más consenso haya, más rápido será el proceso. Por ello, hay que construir consensos sociales y políticos para garantizar los derechos lingüísticos. Creemos que en el proceso de normalización de una lengua y, por tanto, en la construcción de una sociedad basada en la justicia social, es necesario tomar en cuenta la garantía de los derechos lingüísticos. Por ello, los derechos lingüísticos son el principio básico para el consenso.

HELBURUA

Hona xedea laburbilduta:

Euskararen erabilera erosoarako baldintzak sortzea da helburu nagusia. Horretarako, hizkuntza-eskubideak eremu guztietan bermatu beharko dira, hala nahi duen edonork ez dezan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik izan.

Erabilera erosoarako baldintzei buruz ari garenean, zera esan nahi da: herritarrak ahalegin berezirik egin beharrik gabe, euskara eroso erabiltzeko baldintzak izango dituela, euskaraz hitz egiteagatik deseroso edo baztertua sentitu gabe.

Hortaz, agertoki horretan hizkuntza-eskubideak bermatuko dira, eta euskaraz duintasunez bizi ahal izateko baldintzak beteko dira. Finean, bazterkeriak alboratuko dira; egiturazkoak edo legezkoak ez ezik, baita ekonomikoak, sozialak edo kulturalak ere, agerikoak zein inplizituak. Izan ere, bazterkeria horiek hiztun-komunitatearen duintasunaren aurkako erasotzat joko dira, euskaraz bizi nahi duenarentzako zangotrabatzat.

Euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzen dugu. Eskubide den heinean esparruz esparru beratu gauzatzeko erabakiak eta baliabideak eskatu behar ditugu.

Gaur-gaurkoz, oraindik, ez dira baldintza egoki horiek betetzen, eta, beraz, horiek sortzea izango dugu helburu.

OBJETIVO

He aquí el objetivo resumido:

El objetivo principal será crear condiciones para un uso cómodo del euskara. Para ello, deberán garantizarse los derechos lingüísticos en todos los ámbitos, de modo que cualquier persona que quiera hacerlo, no tenga ningún inconveniente.

Cuando hablamos de condiciones de uso cómodo, lo que se quiere decir es: la ciudadanía, sin tener que realizar ningún esfuerzo adicional, tendrá condiciones reales para el uso del euskara de una manera cómoda y sin por ello sentirse incómoda o excluida.

Por tanto, en este escenario se garantizarán los derechos lingüísticos y se cumplirán los requisitos para poder vivir en euskara con dignidad. En definitiva, se quieren eliminar las discriminaciones, no solo estructurales o legales, sino también económicas, sociales o culturales, tanto evidentes como implícitas. Esas discriminaciones serán consideradas atentados contra la dignidad de la comunidad de hablantes, zancadilla para quien quiera vivir en euskara.

Reivindicamos el derecho a vivir en euskara. En la medida en que es un derecho debemos exigir decisiones y recursos para materializarlo por ámbitos.

Hoy día, todavía no se cumplen estas condiciones adecuadas; es por ello que nuestro objetivo será crearlas.

NORABIDE ETA LEHENTASUNAK

Euskararen erabilera kate luze baten katebegi gisa irudika genezake. Izan ere, erabilera hori gauzatu dadin, aurreko baldintza horiek guztiak bete beharko dira; elkarri kateatuta datoz. Eta, era berean, erabilerak ere eragingo die gainontzeko katebegiei. Horregatik diogu euskararen erabilerarako funtsezkoak direla katebegi guztiak behar bezala osatuta egotea. Euskararen garapena kate oso legez ulertu behar delako, katebegiek elkarri eragiten.

Erabilera erosora igarotzeko, ordea, bi mailatako baldintzak hartu behar dira gogoan: maila indibidualekoak eta maila kolektibokoak.

Maila indibidualeko baldintzak: norbanakoen erabilera erosoan zuzenean eragiten duten aldagaiak dira; hain zuzen ere, hizkuntza erabiltzeko konpetentziari lotutakoak.

Hau da, testuinguruari egokitutako ezagutza, gaitasun eta jarreraren konbinazioari lotutako konpetentziak dira (erabiltzen jakitea, erabili nahi izatea eta erabili ahal izatea).

Horien artean garrantzia berezia du euskara erabiltzeko gaitasun egokia izateak, alegia, euskara eroso erabili ahal izateko behar besteko gaitasuna izateak.

Hori bakarrik ez, euskara erabiltzeko nahia ere izan behar du hiztunak. Horrek motibazioen esparrura garamatza.

Esparru horretan bi motibazio-mota landu beharko dira: motibazio afektiboa eta motibazio pragmatikoa (instrumentala).

> **Motibazio afektiboaren** kasuan, komunitatearen pertenezia, identitatea, euskararekin izaniko gozamenezko bizi-esperientziak eta abar luzea landu beharko dira. Horrek esan nahi du hizkuntzaren eta kulturaren arteko hariak egoki josi beharko direla, eta jendea euskal kulturaren murgiltzera bultzarazteaz gain, motibazio hori lantzeko etengabeko sensibilizazio- eta komunikazio-estrategia egokiak garatu beharko direla. Halaber, horrek euskaltzaleak ez diren

RUMBO Y PRIORIDADES

Consideramos el uso del euskara un eslabón de una larga cadena. Y para que se realice dicho uso, se deberán cumplir todas las condiciones previas, ya que van unidas o encadenadas. A su vez, el uso de lengua también repercutirá en los demás eslabones. Por ello, decimos que para el uso del euskara es necesario que todos y cada uno de los eslabones estén estructurados correctamente. Debemos entender el desarrollo de la lengua como una cadena en la que los eslabones influyen entre sí.

De esta manera, para llegar a ese estadio del uso cómodo de la lengua, debemos considerar dos tipos de condiciones: condiciones a nivel individual y condiciones a nivel colectivo.

Condiciones individuales: son variables que inciden directamente en el uso cómodo de la lengua del individuo; concretamente, las relacionadas con la competencia lingüística. Es decir, son competencias ligadas a la combinación de conocimiento, capacidad y actitud adecuadas al contexto (saber usarla, querer utilizarla y poder utilizarla).

Entre ellas, destaca la importancia de tener una competencia adecuada para el uso del euskara, es decir, tener la competencia suficiente para usar la lengua de manera cómoda.

No sólo eso, el hablante debe querer usar el euskara. Y ello nos lleva al ámbito de la motivación. Aquí nos encontramos dos tipos de motivación: la afectiva y la pragmática (instrumental).

> **En la motivación afectiva,** se trabajará sobre la pertenencia a una comunidad, la identidad, las experiencias de disfrute vividas en euskara etcétera. Eso significa tejer adecuadamente los hilos entre lengua y cultura. Por ello, además de introducir a la gente en la cultura euskaldun habrá que hacer un trabajo continuo de sensibilización, así como desarrollar estrategias de comunicación adecuadas. Asimismo, esto nos debe llevar a incidir en las actitudes de quietud.

jarreretan eragitera eraman behar gaitu besteak beste. Horrela, euskararen prestigioa handitzeko asmoz euskaltzaleak ez diren eta euskararekin harremanik ez duten herritarrak aktibatze bideak ere landu beharko dira.

> **Motibazio pragmatikoa** estuki loturik dago norbere garapen pertsonalean eta profesionalean euskaraz hitz egiteak ekarriko dizkion onurekin. Hortaz, zerikusi handia izango dute horretan instituzioetatik garatzen diren politika publikoek, bai eta pribatuek ere.

Maila kolektiboko edo egiturazko baldintzak: anitzagoak eta askotarikoagoak dira: elebidunen dentsitatea eta kontzentrazioa, erabilera babesteko/sustatzeko arau eta politikak, ... Horiei alde edo molde lotzen zaizkie, beraz, proposamen politiko honetan jasotzen diren ekarpen guztiak. Hor ere badaude maila transzendentala edo balio konpartituek ematen dituzten baldintzak: gizarteak orokorrean euskararekiko duen balorazioa eta euskararen prestigioa, besteak beste pertsona erreferentzialen euskararen erabilera, gizartean erreferentzialak diren eragileek euskara kokatzen duten tokia, hedabideetan euskarak duen espazioa...

Horiek esanda, eta euskararen erabilera erosorako baldintzak sortzea jomuga izaki, bi ardatz nagusitan koka dezakegu helburu hori lortzeko norabidea. Alde batetik, hizkuntzaren ezagutzaren unibertsalizazioa bultzatu beharko da, herritar guztiek euskaraz aritzeko gaitasun egokia izan dezaten. Eta, bestetik, euskara eroso erabiltzeko eremuak sortu, garatu eta elkarlotu beharko dira, hala nahi duen edonork ez dezan izan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik.

1. EZAGUTZAREN UNIBERTSALIZAZIOA

Herritarren euskaraz aritzeko gaitasun egokia zabaltzea gakoa izango da euskararen erabilera erosorako. Edonork, edonon, euskara erabiltzeko eragozpenik izango ez badu, ezinbestekoa da elkarriketako partaide guztiek euskaraz gaitasun nahikoa izatea. Eta, erabilera eroso hori edonork egin ahal izango badu, horretarako behar besteko gaitasuna izan beharko du; ez dadin beste hizkuntza batean baino deserosoago sentitu euskaraz hitz egiteko garaian.

nes no son euskaltzales. Así, con el fin de aumentar el prestigio del euskara habrá que trabajar también en las vías para activar a la ciudadanía que no es euskaltzale y que no tienen relación con el euskara.

> **En la motivación pragmática**, los beneficios de hablar en euskara están estrechamente ligados al desarrollo personal y profesional de cada persona. Por lo tanto, las políticas públicas que se desarrollen desde las instituciones como las políticas privadas serán motor en esa motivación.

Condiciones colectivas o estructurales: son más diversas y más variadas: la densidad y concentración de personas bilingües, las normas y políticas de protección/promoción del uso, el prestigio del idioma, etc. Todas estas cuestiones son, por tanto, las que se toman en consideración en esta propuesta política. Ahí también hay condiciones que dan un nivel trascendental o valores compartidos: la valoración de la sociedad en general respecto al euskara y el prestigio del euskara, entre otros, el uso del euskara de las personas referenciales, el lugar donde los agentes referenciales de la sociedad sitúan el euskara, el espacio del euskara en los medios de comunicación...

Dicho esto, y con el objetivo de crear condiciones para un uso cómodo del euskara, situamos dos ejes que marcan el rumbo para llegar a ese objetivo. Por un lado, se deberá impulsar la universalización del conocimiento, con el fin de que todos los ciudadanos y ciudadanas tengan un conocimiento adecuado para el uso del euskara. Y por otro, se deberán crear, desarrollar e interrelacionar espacios para el uso cómodo del euskara, para que cualquier persona que quiera usarlo, lo pueda hacer sin ningún tipo de restricción.

1. UNIVERSALIZACIÓN DEL CONOCIMIENTO

Herritarren euskaraz aritzeko gaitasun egokia zabaltzea gakoa izango da euskararen erabilera erosorako. Edonork, edonon, euskara erabiltzeko eragozpenik izango ez badu, ezinbestekoa da elkarriketako partaide guztiek euskaraz gaitasun nahikoa izatea. Eta, erabilera eroso hori edonork egin ahal izango badu, horretarako behar besteko gaitasuna izan beharko du; ez dadin bes-

Norabide horretan, ezagutzaren unibertsalizazioa lortu artean, lehen urrats gisa, ulermena unibertsalizatzea garrantzitsua izango da, euskaraz aritu nahi duen orok edozein egoeratan eta edozein solaskiderekin hizkuntza-hautua gauzatu ahal izateko.

Ondorioz, ezagutza unibertsalizatzeko iturri eta baldintzetan jarri beharko da arreta: hezkuntza sisteman, helduen euskalduntzean eta hizkuntza-transmisioan edo -sozializazioan. Esparru horiei begirako politiketan jauzia egin beharko da:

Hizkuntza-sozializazioari dagokionez, ezinbestekoa izango da horri berariaz erreparatzea. Hau da, familia arteko transmisioaz gain, haur eta gazteen arteko elkarrekintzak, arau sozialak, kodeak, hierarkiak... halakoak ere kontuan hartu beharko dira, besteak beste.

Hezkuntza-sistemak, bestalde, ezagutzaren unibertsalizazioa erdiesteko zutabe izaten jarraitzen du. Bertatik etorri da azken urteotako euskalduntze emari nagusia, baina emari horrek izan ditu mugak eta zailtasunak; zenbait ingurune soziolinguistikotan bereziki. Euskaraz eroso arituko diren ikasleak hezteko, murgiltze eredia, ikasteredu orokor gisa ezarri behar da. Inor bazterrean utziko ez duen eredia izan beharko du, eta gutxien duenari gehiago emango diona. Horretarako, testuingurura egokitu, eta haur hezkuntzatik maila goreneko hezkuntzara (lanbide heziketa eta unibertsitatea barne) hizkuntza-irakaskuntza bermatu beharko du, ikasleek bizitza sozial eta profesionalean euskara eroso erabiltzeko adina gaitasun eskura dezaten.

Helduen euskalduntze eta alfabetatzeak, azkenik, euskararen ezagutza nahikoa bermatu beharko die bai etorri berriak direnei, eta bai hezkuntzatik behar besteko gaitasuna eskuratu ez dutenei ere (azken hauen kasuan, etorkizun hurbilean, hezkuntzak bermatu beharko luke oinarritzko ezagutza hori, esan bezala). Horretarako, unibertsalizazioa bermatzeko, zerbitzua doan jaso ahal izatea lortu beharko da.

2. EUSKARA EROSO ERABILTZEKO EREMUAK SORTU, GARATU ETA ELKARLOTZEA

Euskara eroso erabiltzeko, beharrezkoa da horretarako

te hizkuntza batean baino deserosoago sentitu euskaraz hitz egiteko garaian.

En esta sentido, hasta lograr la universalización del conocimiento, como primer paso, será importante universalizar la comprensión, para que todo aquel que quiera expresarse en euskara pueda ejercer la elección lingüística en cualquier situación y con cualquier interlocutor.

Por tanto, se deberá poner especial atención en las fuentes y condiciones para la universalización del conocimiento: en el sistema educativo, en la enseñanza de adultos, en la transmisión del euskara o en su socialización. Habrá que dar un paso adelante en las políticas de esos ámbitos.

En cuanto a la **socialización de la lengua**, será imprescindible considerarlo de manera específica. Es decir, además de la transmisión familiar se deberán tomar en cuenta la interacción infantil y juvenil, las normas sociales, los códigos, las jerarquías..., entre otros aspectos.

El **sistema educativo**, por su parte, sigue siendo un pilar para lograr la universalización del conocimiento del euskara. De ahí viene el principal caudal de euskaldunización de los últimos años. Es cierto que ese caudal ha tenido límites y dificultades, especialmente en algunos entornos sociolingüísticos. Por ello, en aras de garantizar un alumnado que se desenvuelva cómodamente en euskara, se deben analizar dichas dificultades y se debe implantar un modelo generalizado de inmersión. Un modelo que no excluya a nadie y que dé más al que más lo necesita. Para ello, dicho modelo se deberá adaptar al contexto y deberá garantizar el euskara como lengua de enseñanza desde la educación infantil hasta la universitaria, incluyendo la formación profesional. Esa será la vía para que el alumnado obtenga una competencia lingüística que le permita hacer un uso cómodo del euskara tanto a nivel social como profesional.

Por último, la **euskaldunización y alfabetización de adultos** deberá garantizar un conocimiento suficiente del euskara tanto a los recién llegados como a quienes no hayan adquirido la competencia en la etapa educativa (en este último caso, el sistema educativo debería garantizar en un futuro próximo este conocimiento básico, como se ha indicado). Para ello, habrá que conseguir la gratuidad del proceso de euskaldunización, para

espazioak sortzea, garatzea eta elkarlotzea. Eredu horiek, ordea, ez dira bat-batean lortuko, progresiboki lortu beharko dira.

Bi esparru bereziko dira: **eremu soziofuntzionalak** eta **eremu geografikoak**. Lehenak, funtzio sozial jakin bati loturiko eremuak dira (administrazioa, ikastetxea, jantokia, mendi-elkartea...); bigarrenak, berriz, lur-eremu jakin bati lotutakoak (auzo, herri, eskualde...). Bistan da, bereizi litezkeen arren, hartu-emanetan daudela: eremu soziofuntzionalak eremu geografikoetan kokatuta daude, eta alderantziz. Beste modu batean esanda: herriko tabernek, dendek, lantokiek, ikastetxeek... ezaugarritzen dituzte, hein handi batean, auzoak edo herriak berak, eta alderantziz. Horren barruan, noski, eremu digitalean ere baldintzak sortu beharra dago euskararen erabilera modu erosoan egin dadin, besteak beste funtsezko sozializazio esparrua bihurtu baita.

Eredu horien garapen jasangarria landu beharko litzateke; beti ere eremu horiek euren inguruarekin (alboko herriekin, zerbitzuekin,...) duten harremana aintzat hartuta, bai eta horrek eskatu dezakeen bestelako gune geografikoen eta soziofuntzionalen lanketa garatuta ere. Beraz, eremu soziofuntzionalak abiatuta, ahalik eta eremu geografiko zabalenetan euskara eroso erabiltzeko eremuak sortzen, garatzen eta elkartzen joan beharko gara.

Azkenik, dokumentu honetan jarritako lehentasunak aintzat hartuz, lurraldearen eta eremu soziolinguistikoen arabera aztertu beharko dira zeintzuk diren lehenetsi beharreko politikak eta proposatutako norabideetan eman beharreko urratsen hurrenkera.

así garantizar la universalización del conocimiento.

2. CREAR, DESARROLLAR E INTERRELACIONAR ESPACIOS PARA EL USO CÓMODO DEL EUSKARA

Para poder utilizar el euskara de manera cómoda es necesario crear, desarrollar e interrelacionar espacios. Esos espacios no surgirán improvisadamente, se deberán crear de manera progresiva.

Se diferenciarán dos ámbitos: las áreas socio funcionales y las áreas geográficas. Los primeros son espacios asociados a una determinada función social (administración, centro de enseñanza, comedor, asociación de montaña...); los segundos a un lugar geográfico concreto (barrios, pueblos, comarca...). Es evidente que, aunque se diferencien, las dos áreas están interrelacionadas. Dicho de otra manera, los bares, comercios, centros de trabajo, centros educativos, etc. son los que caracterizan los pueblos y barrios, y viceversa. Dentro de ello, por supuesto, también en el ámbito digital hay que crear las condiciones para que el uso del euskara se haga de forma cómoda, ya que entre otras cosas se ha convertido en un ámbito de socialización fundamental.

Se debería trabajar en el desarrollo sostenible de estos espacios, siempre tomando en consideración la relación con su entorno (con los pueblos colindantes, con los servicios...), además de desarrollando nexos con otras zonas geográficas o socio-funcionales. Por tanto, partiendo de las áreas socio-funcionales, iremos creando, desarrollando e interrelacionando áreas para el uso cómodo del euskara en espacios geográficos más amplios.

Por último, teniendo en cuenta las prioridades establecidas en este documento, deberán analizarse en función del territorio y del ámbito sociolingüístico cuáles son las políticas a priorizar y el orden de pasos a dar en las direcciones propuestas.

KONPROMISOAK ETA URRATSAK

Sinetsita gaude jauzia egiteko unea dela, eta euskararen normalizazio-prozesuan **erantzukizun partekatuak** ditugula. Geure egiten ditugu dokumentu honek bildutako printzipioak, estrategia eta bisioa. Horregatik, uste dugu elkarrekin urratsak egin eta konpromisoak hartzeko unea dela.

Are gehiago, adostasun hau baliatu nahi dugu egiturazko aldaketak lortzeko: hizkuntza-eskubideen bermea ardatz izango duten politiketan eragiteko **urrats bateratuak** egin nahi ditugu, kohesioan, justizian eta demokrazian sakontzeko.

Horregatik guztiagatik, honako konpromiso hauek hartuko ditugu:

1. Dokumentu honetan jasotako **edukia gizarteratzea**, ahalik eta herritar sektore zabalenera helaraziz eta horien aldeketasunak lortzeko ahalegina eginez. Horretarako, lehen urratsa, erakunde bakoitzaren oinarri sozialarekin partekatzea izango da.
2. Dokumentu honetan jasotzen direnak **geure egitea**. Horrela, gure erakundeak administrazioarekin eta bestelako eragileekin izan ditzakeen hartu-emanetan dokumentu honetan jasotzen diren hizkuntza-politikari buruzko ikuspegiak eta proposamenak defendatuko dira.
3. Sinatzaile garen guztiok konpromisoa hartzen dugu dokumentua sinatu eta biharamunetik aurrera **elkarlanean jarraitzeko**, hizkuntza-politiketan hartu beharreko neurri zehatzak eta horiek aurrera ateratzeko dinamikak definitzen. Horretarako, adierazten dugu norbere erakundearen arloko lan-taldean parte hartzen jarraitzeko konpromisoa.

COMPROMISOS Y PASOS

Tenemos el total convencimiento de que es el momento de dar un salto, y de que tenemos **responsabilidades compartidas** en el proceso de normalización del euskara. Asumimos los principios, estrategia y visión recogidos en este documento. Por ello, creemos que es el momento de avanzar juntos y de adquirir compromisos.

Es más, queremos aprovechar este consenso para lograr cambios estructurales: dar **pasos comunes** para incidir en políticas que tengan como eje la garantía de los derechos lingüísticos, para profundizar en la cohesión, la justicia y la democracia.

Por todo ello, nos comprometemos a:

1. **Socializar el contenido** del presente documento, de la manera más extensa posible y haciendo un esfuerzo por conseguir más entidades que se le unan. Para ello, el primer paso será compartir este contenido con nuestras bases.
2. **Asumir** lo recogido en este documento. De este modo, se defenderán las visiones y propuestas de política lingüística que se recogen en este documento en las relaciones que nuestra organización tenga con la administración y con otros agentes,
3. Todos los firmantes nos comprometemos a **seguir trabajando conjuntamente** a partir del día siguiente a la firma del documento, para desarrollar las medidas concretas que se deben adoptar en las políticas lingüísticas a corto o medio plazo, así como en participar en las dinámicas para su desarrollo. Para ello, nos comprometemos a seguir participando en el equipo de trabajo que corresponda a nuestro ámbito de actuación.

ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEA

AEK - ALFABETATZE EUSKALDUNTZE
KOORDINAKUNDEA

AGIRRE LEHENDAKARI CENTER

AHOTSENEA

ARTEZ

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA

BAI EUSKARARI ELKARTEA

BEHATEGIA - EUSKARAZKO HEDABIDEEN
BEHATOKIA

BERRIA TALDEA

BILGUNE FEMINISTA

BIZIPOZA

BIZKAIA IRRATIA

BIZKAIKO ABOKATUEN ELKARGO OHORETSUA

BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLA

DANTZAN

DINDAIA FUNDAZIOA

EGI - EUZKO GAZTEDI

EHIGE - EUSKAL HERRIKO IKASLEEN GURASOEN
ELKARTEA

EHNE SINDIKATUA

EIZIE - EUSKAL ITZULTZAILE, ZUZENTZAILE ETA
INTERPRETEEN ELKARTEA

EKOLOGISTAK MARTXAN

EKONOMISTEN EUSKAL ELKARGOA

ELA SINDIKATUA

ELHUYAR TALDEA

ELKAR FUNDAZIOA

EMUN KOOPERATIBA

ERNAI

ESK SINDIKATUA

EUSKAL AKTOREEN BATASUNA

EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA

EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

EUSKAL HERRIKO ANTZERKIZALE ELKARTEA

EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO
OFIZIALA- BIZKAIKO DELEGARITZA

EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

EUSKAL HERRIKO GUTUN SOZIALA

EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK

EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA

EUSKAL HERRIKO LABORARIEN BATASUNA

EUSKAL HERRIKO LEHEN MAILAKO PEDIATRIA
ELKARTEA

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

EUSKAL KONFEDERAZIOA

EUSKAL KONTSUMITZAILEEN ALKARTEA

EUSKAL MEMORIA FUNDAZIOA

EUSKAL MONETA

EUSKAL WIKILARIEN ELKARTEA

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

EUSKARAGILEAK ENPRESEN BATZORDEA

EUSKO IKASKUNTZA

EZKERRABERRI FUNDAZIOA

FARMAZILARI EUSKALDUNEN ELKARTEA

GARABIDE

GAZTE ABERTZALEAK

GEREDIAGA

GERRIKO KULTUR ELKARTEA

GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUA

GIPUZKOAKO ERIZAINEN ELKARGOA

GIPUZKOAKO SENDAGAIGILEEN ELKARTEA

GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
GIPUZKOAKO URTXINTXA
GURE ESKU
(H)EMEN ELKARTEA
HEIZE - EUSKAL ESKOLA PUBLIKOEN
ZUZENDARITZA ELKARTEEN FEDERAZIOA
HEKIMEN - EUSKAL HEDABIDEEN ELKARTEA
HIK HASI - EUSKAL HEZIKETARAKO EGITASMOA
HIRU SINDIKATUA
HIRUKI LARROSA
HITZEZ EUSKALTEGIA
HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA
IBAIA - IKUS-ENTZUNEZKOEN EUSKAL EKOIZLE
BURUJABEEN ELKARTEA
IKAMA - IKASLE ANTOLAKUNDEA
ILAZKI EUSKALTEGIA
IRRIEN LAGUNAK
JAKIN ALDIZKARIA
KARMELDARRAK
KATXIPORRETA
KONFEKOOP - EUSKADIKO KOOPERATIBEN
KONFEDERAZIOA
KRISTAU ESKOLAK
LAB SINDIKATUA
MAIZPIDE EUSKALTEGIA
MINTZAIAN - HENDAIKO EUSKARA ETA KULTUR
ELKARTEA
MINTZALASAI
MINTZANET
MONDRAGON KORPORAZIOA
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
NAFARROAKO ATENEOA

NAFARROAKO ETA ERRIOXAKO IKA
OEE - OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO
ERAKUNDEA
OINHERRI
OLATUKOOP
ORDIZIA RUGBY ELKARTEA
PUNTUEUS FUNDAZIOA
REAL SOCIEDAD FUNDAZIOA
SORTZEN
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
STEILAS SINDIKATUA
TELESFORO MONZON eLab
TINKO EUSKARA ELKARTEA
TOKIKOM - TOKI KOMUNIKABIDEEN BATERAGUNEA
UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA
URRATS EUSKALTEGIA
UZEI
ZABALIK AMIKUZEKO EUSKALGINTZA

